



fundazioa

1. Aceptación de las dos actas anteriores.
2. Presentación de la Memoria de Actividades de EZA (Marzo-Abril 2007).
3. Tareas de EZA (Mayo-Junio 2007)
4. Asuntos varios:
  - 4.1. Convenio con HUHEZI
  - 4.2. Modificación de los Estatutos de EZA
  - 4.3. Aceptación de las Cuentas Anuales de 2006
  - 4.4. Otros

**CUARTO.-** A la reunión asistieron la totalidad de sus componentes, se celebró la reunión y de forma unánime se adoptaron los siguientes ACUERDOS:

**ACUERDO I.-** Modificar el artículo número 6 que hace referencia a los Fines fundacionales en los términos que se indican como texto propuesto.

AURREKO TESTUA	PROPOSATUTAKO TESTUA
<p><b>6. Artikulua. Fundazioaren Helburuak.</b></p> <p>Fundazio honek, berezko edo beste pertsona fisiko zein juridikoen elkariaguntza jardueren bidez, Europan politika publikoen azterketa eta hobekuntza sustatzea izango du helburu, politika eremu ezberdinetan orokorrean eta gizarte-ekonomia politikarekin eta arlo kooperatibo edo Gizarte Ekonomiaz erlazionatutako orotan bereziki.</p> <p>Helburu orokor honetan oinarrituta, besteak beste, ondoko jarduerak jorratuko dira:</p> <p>a) Enpresa, unibertsitate eta ikerkuntza zentruen harremanetan, ikerkuntza eta garapen proiektuak bideratu, Politika Publikoekin loturik dauden arlo guztietan.</p> <p>b) Ikerlarien formakuntza...</p> <p>c) Fundazioari dagokion arloan...</p> <p>d) Politika Publikoekin loturik dauden gaietan mota guztietako zerbitzuak</p>	<p><b>6. Artikulua. Fundazioaren Helburuak.</b></p> <p>Fundazio honek, berezko edo beste pertsona fisiko zein juridikoen elkariaguntza jardueren bidez, <u>bereziki</u> Europan politika publikoen azterketa eta hobekuntza sustatzea izango du helburu, politika eremu ezberdinetan orokorrean eta gizarte-ekonomia politikarekin eta arlo kooperatibo edo Gizarte Ekonomiaz erlazionatutako orotan bereziki.</p> <p>Helburu orokor honetan oinarrituta, besteak beste, ondoko jarduerak jorratuko dira:</p> <p>a) Enpresa, unibertsitate eta ikerkuntza zentruen harremanetan, ikerkuntza eta garapen proiektuak bideratu, Politika Publikoekin loturik dauden arlo guztietan.</p> <p>b) Ikerlarien formakuntza...</p> <p>c) Fundazioari dagokion arloan...</p> <p>d) Politika Publikoekin loturik dauden gaietan mota guztietako zerbitzuak</p>

*Handia da*  
*berrikuntza*



fundazioa

Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

13079



JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

AURREKO TESTUA	PROPOSAMUTAKO TESTUA
<p>eskaini.</p> <p>e) Instituzio publiko eta pribatuek gai publikoen kudeaketa eta bien arteko lankidetzan duten eraginkortasuna bultzatzea, arreta berezia jarriz, enpresa kooperatibo eta Gizarte Ekonomiakoek duten paperean.</p> <p>f) Politika Publikoekin loturik dauden beste motako jarduerak bideratu</p> <p>Helburu zerrenda honek ez du izaera mugatzailerik, ez du derrigorrezko egiten helburu guztietan jardutea, ez eta beraien arteko inolako lehentasunik ezartzen. Fundazioak, beti ere bere espiritu zabalaren eremuan, askatasun osoa izango du une bakoitzeko zirkunstantzia edo inguruabarrak kontutan hartuz, Fundazioaren Zaingo Batzordearen iritziz egokienak diren jarduera eta xedeetara bere jarduerak zuzentzeko.</p>	<p>eskaini.</p> <p>e) Instituzio publiko eta pribatuek gai publikoen kudeaketa eta bien arteko lankidetzan duten eraginkortasuna bultzatzea, arreta berezia jarriz, enpresa kooperatibo eta Gizarte Ekonomiakoek duten paperean.</p> <p>f) Politika Publikoekin loturik dauden beste motako jarduerak bideratu</p> <p>Helburu zerrenda honek ez du izaera mugatzailerik, ez du derrigorrezko egiten helburu guztietan jardutea, ez eta beraien arteko inolako lehentasunik ezartzen. Fundazioak, beti ere bere espiritu zabalaren eremuan, askatasun osoa izango du une bakoitzeko zirkunstantzia edo inguruabarrak kontutan hartuz, Fundazioaren Zaingo Batzordearen iritziz egokienak diren jarduera eta xedeetara bere jarduerak zuzentzeko.</p>

**QUINTO.-** Que los ajustes en los fines fundacionales se deben a una ampliación del ámbito de investigación en el que opera la Fundación, pero que respetan el espíritu de los fines inicialmente definidos.

**SEXTO.-** Que no existe prohibición alguna de los fundadores para llevar a cabo la presente modificación estatutaria.

La razón por la que se ha llevado a cabo esta modificación estatutaria se basa en una ampliación del ámbito de estudio de EZAI Fundazioa, sin que esto incurra en ningún efecto económico.

Por lo tanto, como anexo de este certificado se adjunta la versión definitiva de los Estatutos.

El Acta redactada al final de la reunión fue aprobada por unanimidad y firmada por la Presidenta y Secretaria.



**fundazioa**


Y para que así conste, y a los efectos oportunos, extiendo la presente certificación en Arrasate-Mondragón, a 20 de noviembre de 2007.

Vº Bº LA PRESIDENTA

Zorione Arregi Elkorobarrutia


LA SECRETARIA

Ainhoa Larrañaga Elorza



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B 2213078**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

**"EUROPEAN FOUNDATION FOR PUBLIC POLICIES-EZAI  
FUNDAZIOA" FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK**

I KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. ARTIKULUA. IZENA

"EUROPEAN FOUNDATION FOR PUBLIC POLICIES-EZAI  
FUNDAZIOA" izenarekin Euskal Autonomi Erkidegoan bere  
funtzioak garatuko dituen eta bereziki, fundazioaren  
helburuak gauzatzera zuzendua dagoen, eta ondare autonomoa  
duen enpresa zuzenbidearen sustapenerako fundazio pribatua  
eratzen da.

Euskal Autonomi Erkidegoaren fundazioei buruzko 12/94  
legean eta ezargarri diren gainontzeko arauen arabera  
zuzendu edo eraenduko da.

2. ARTIKULUA. GAITASUN JURIDIKOA

Fundazioak, berezko nortasun juridikoa dauka, legezko  
eta iharduteko gaitasun osoa duelarik. Ondorioz,  
ordenamendu juridikoan eraendutakoaren arabera, mota  
guztietako ondasun higigarri, higiezin eta eskubideak  
eskuratu, gorde, eduki eta edozein bide erabiliaz  
eskualdatu, saldu eta zamak jarri ahali zango ditu; mota  
guztietako kontratu eta egintzak gauzatu; eskubideei uko  
egin eta epaitegi, auzitegi eta erakunde publiko zein  
pribatuen aurrean mota guztietako akzio eta salbuespenak  
tartekatu.



### 3. ARTIKULUA. IRAUPENA

Fundazioaren iraupen mugagabea izango da. Hala ere, estatutuetan eraendutakoaren arabera Zaingo Batzordeak iraungitzat jo dezake.

### 4. ARTIKULUA. ERAENTZA

Indarrean dagoen araubide juridikoa baztertu gabe, Fundazioa hau, sortzaileek eratze-egintzat zuzenki edo zeharka adierazitako borondatearen, Estatutu hauen eta Fundazioaren gobernu organuek sortzaileen borondatearen interpretazio eta garapenaren ezarritako xedapenen arabera eraenduko da.

### 5. ARTIKULUA. HELBIDEA

Arrasaten (Gipuzkoan) Garaia Berrikuntza Gunean, Goiru kaleko 1. zenbakian izango du finkatuta bere helbidea Fundazioak. Hala ere, Fundazioaren Zaingo Batzordeak askatasunez helbide sozialaren lekualdaketa erabaki dezake, erroldan helbide aldaketa inskribatuz.

Zaingo Batzordeak Fundazioren establezimendu edo delegazioen egoitzak zehazteko ahalmena izango du.

## II. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA

### 6. ARTIKULUA. FUNDAZIOAREN HELBURUAK


Fundazio honek, berezko edo beste pertsona fisiko zein juridikoen elkarlaguntza jardueren bidez, bereziki Europan politika publikoen azterketa eta hobekuntza sustatzea



**FN**  
fundazioa

Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B 2213077**



izango du helburu, politika eremu ezberdinetan orokortzea eta gizarte-ekonomia politikarekin eta arlo kooperatibo eta Gizarte Ekonomiaz erlazionatutako orotan bereziki

Helburu orokor honetan oinarrituta, besteak beste, ondoko jarduerak jorratuko dira:

- a) Enpresa, unibertsitate eta ikerkuntza zentruetara harremanetan, ikerkuntza eta garapen proiektuak bideratu, Politika Publikoekin loturik dauden arlo guztietan.
- b) Ikerlarien formakuntza...
- c) Fundazioari dagokion arloan...
- d) Politika Publikoekin loturik dauden gaietan mota guztietako zerbitzuak eskaini.
- e) Instituzio publiko eta pribatuek gai publikoen kudeaketa eta bien arteko lankidetzan duten eraginkortasuna bultzatzea, arreta berezia jarriz, enpresa kooperatibo eta Gizarte Ekonomiakoei duten paperean.
- f) Politika Publikoekin loturik dauden beste motako jarduerak bideratu

Helburu zerrenda honek ez du izaera mugatzaile, ez du derrigorrezko egiten helburu guztietan jardutea, ez eta beraien arteko inolako lehentasunik ezartzen. Fundazioak, beti ere bere espiritu zabalaren eremuan, askatasun osoa izango du une bakoitzeko zirkunstantzia edo inguruabarrak kontutan hartuz, Fundazioaren Zaingo Batzordearen iritziz egokienak diren jarduera eta xedeetara bere jarduerak zuzentzeko.



## 7. ARTIKULUA. ONURADUNAK


Fundazioak interes orokorreko bere helburuen artean, inpartzialitate eta objetibotasunaren erizpideen arabera ihardun beharko du bere onuradunak aukeratzekoan, ezin izango delarik inolako diskriminaziorik eman.

Zentzu honetan, fundazioaren onuradunak nagusiki, enpresa zuzenbidearen inguruko ikerketa juridikoan interesaturik dauden pertsona juridikoak eta, batez ere, enpresak, hezkuntz-zentruak eta administrazioa bera izango dira. Hauek lehentasuna izango dute gainontzeko onuradunen aurrean Fundazio honen helburuak kontutan hartuz, eta beti ere, onuradunak aukeratzeko ezarritako inpartzialitate eta objetibotasun erizpideak errespetatuz.

Banaka zehaztutako pertsonak ezin daitezke onuradun, izan, eta prestazio fundazionalak ezingo zaizkie zuzendu fundatzaile, hauen ezkontide edo 4. gradurarteko ahaideei (azken gradu hau barne).


Fundazioak ematen dituen zerbitzuak direla eta, bere onuradunei kopuru bat ordaintzea galdatzen dienean, soilik galdatutako kantitate hori ordaintzen dutelako egingo da onuradunen zehaztapena.

Halaber, Fundazioaren berezko izaerak onuradunen zenbatekoa mugatzea eskatzen badu, hauen hautaketa eta zehaztapena Zaingo Batzordeak egingo du modu errebokaenez, aurkezten direnen meritu, beharrian, gaitasun ekonomiko, probetxua ateratzeko aukerak edo beste ezaugarri objetiboak kontutan izanda. Orohar, ezin dezake inork, ez banaka ez taldeka, fundazio edo bere organuen



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B 2213076**



aurrean, eman aurretiko onuren gozamina eskatu ez eta horien  
esleipena pertsona zehatzei inposatu ere.

#### 8. ARTIKULUA. NORAKO ZEHATZAK

Fundazioak, Zaingo Batzordearen aurretiazko onarpenaz, bere objetuan jasotako helburu zehatz batetara ondasunak, edo hauek emaniko fruitu edo errentak zuzentzeko, ondasun hoiak dohaineko tituluz eskuratu dituenen, emailearen borondatea zehatz mehatz errespetatuko ditu.

#### 9. ARTIKULUA. HELBURUAREN GARAPENA

Fundazioaren helburua, ondoko bideen bitartez gauzatuko da:

- a) Fundazioak berak, bere organuen bitartez, Zaingo Batzordeak onartu beharreko iharduera egitaraua jarraituz.
- b) Legearen araberakoak diren fundazio, elkarte, baltzu edo beste motatako erakunde juridikoak eratuz eta sortzen lagunduz.
- c) Fundazioaren inguruan bereziki, bere helburuak lortzeko lagungarriak diren beste erakunde edo legezko zein pertsona fisikoen ihardueraren garapenean laguntza emanez.
- d) Bere helburuak lortzeko asmoz, laguntza ekonomikoa, aholkularitza eta lanbide elkarlaguntza eskaini edo eman ahal izango du Fundazioak. Hortaz gain, edozein motatako dohantza eta diru-laguntzen ematea sustatuko du.





fundazioa

### III. KAPITULUA. ZAINGO BATZORDEA

#### 10. ARTIKULUA. OSAKETA

Zaingo Batzordea, Fundazioaren gobernu eta ordezkaritzarako organo gorena da. Patronatua gutxienez hiru eta gehienez hogeit hamar kidek osatua egongo da.

Zaingo Batzordeak bere kideak izendatzeko eta kargua uztera behartzeko ahalmena izango du.

#### 11. ARTIKULUA. AGINTEALDIA

Pertsona juridiko bakoitzak bere ordezkaria izendatuko du.

#### 12. ARTIKULUA. KARGUAK

Fundazioaren Zaingo Batzordeak, bere kideen artean Lehendakaria, Lehendakariordea -Lehendakaria ordezkatuko duena berau ez dagoenean, gaixotasun bat duenean edo kargua bete gabe dagoenean- eta Idazkaria hautatuko ditu.


#### 13. ARTIKULUA. ESKUDUNTZA

Fundazio honen Zaingo Batzordearen eskuduntza, Patronatuen ohiko eskuduntzetara hedatzen da, eta orokorrean, Fundazioaren goi gobernu, jarduera eta ordezkaritzarekin zerikusia duen guztia.



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B 2213075**



Organo honek bereak propioak eta berari eskutik eman izan daitezkeen ahalmenak delega ditzake.

#### 14. ARTIKULUA. AKORDIOEN EZTABAIDATZEN ETA ONARPEA

**Bat.** Fundazioaren Zaingo Batzordearen bileretarako deialdia, bilera-eguna baino gutxienez astebete lehenago egingo du Lehendakariak.

**Bi.** Baliozko akordioak hartu ahal izateko, Fundazioaren Zaingo Batzordearen kideen gehiengo beharko da bileran bertaratuta.

**Hiru.** Bertaratutako en botuen gehiengo sinplez hartuko dira erabakiak, berdinketa kasuan, Lehendakariaren botuak erabakiko duelarik.

#### IV. KAPITULUA. ERAENTZA EKONOMIKOA

##### 15. ARTIKULUA. KAPITALA

Fundazioaren kapitala horrela dago osatua:

- a) Sortzaileek egindako edo hitzartutako ondarezko ekarpenez.
- b) Ondoren jaso edo eskuratu diren eta Fundazioaren kapitala gehitzera bideratuak dauden kantitateak.

##### 16. ARTIKULUA. ONDAREA

Fundazioaren ondarea, ekonomikoki baloragarriak diren edozein motatako ondasun edo eskubidez osatua egon daiteke.



#### 17. ARTIKULUA. BALIABIDEAK

Fundazioaren helburuak lortzeko behar diren ekonomi-baliabideak, ondorengo bide hauetatik lortuko dira:

- a) Berezko kapitalaren errenta.
- b) Gainontzeko ondasunen fruitu zein errentak.
- c) Mota guztietako pertsona fisiko zein juridikoengandik hartzen diren ekarpen, subentzio, dohantza, jarauspeneo edo agintzak (legatuak).

#### 18. ARTIKULUA. SARREREN NORAKOA ETA ADMINISTRAZIO GASTUAK

**Bat.** Fundazioaren ondasun eta errentak beren helburuak gauzatzera modu zuzen eta berehalako batez lotuak egongo direla ulertzen da.

**Bi.** Fundazioak bere objektuari dagozkion iharduerak aldizkakotasun batez antolatuko ditu, helburu honekin, zerbitzuen urteko plangintza egin, berauen egikaritzea modua eta esleipena onartuko direlarik.

**Hiru.** Fundazioak bere helburuak egikaritzarako, gutxienez, errenta garbien eta beste edozein kontzepturen arabera jasotako sarreraren %70a zuzenduko du jaso direnetik hiru urteko epean eta dagozkien zergak kendu ondoren.

Eraketa momentuan edo ondoren egin diren ondare zuzkidura izaerako ekarpenak, betebeharrak honetatik salbuetsita geratzen dira.

Gainontzeko sarrerak fundazio zuzkidura gehitzera zuzenduko dira administrazio gastuak kendu ondoren. Azken hauek, ezingo dute %20a gainditu, Fundazioak, arrazoituz



Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B 2213074**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**ERREGISTRO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTETASUN SAIALA  
Euzko Jaurlaritzaren Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

egindako eskaeraren ondorioz, Babesletzak esanbidetara inbentario  
ematen duen kasutan salbuetsita. Guzti hau inbentarioa  
dauden legen eta erreglamendu mailako xedapenen arabera.

### 19. ARTIKULUA. AURREKONTUAK

**Bat.** Zaingo Batzordeak urteko ekitaldiaren sarrera eta gastuen aurrekontuak onartuko ditu.

**Bi.** Sarreraren aurrekontuak, beli ere erizpide zuhurrez kalkulatu, Fundazioaren ondasunek ekoiztea aurreikusita dagoen errendimenduaren erlazioa eta 17.c) artikuluan adierazitako kontzeptuengatik sarrerak barneratu.

**Hiru.** Gastuen aurrekontuak, ekitaldian egingo diren aurrikuspina barneratuko du, eta hauen artean, gutxienez, ondarearen baliogalera edo galtzeari dagozkion mantentze eta amortizazio gastuak, giza-baliabide eta iharduketa egitarauaren arabera Fundazioaren helburuak lortzeko erabili behar diren kopuruak.

**Lau.** Ekitaldian beratan agertzen diren beharrei aurrekontua egokitzeko beharrezko edo komenigarriak diren aldaketak egin ahal izango dira.

**Bost.** Ekitaldi bakoitzaren amaieran, Fundazioaren Zaingo batzordeak onartua izan den eta aurrekontuaren ezarpenaren emaitzak adierazten dituen kontuen egoera egingo da.

### 20. ARTIKULUA. KAPITALAREN INBERTSIOA

**Bat.** Fundazioaren kapitala errentagarritasun handiena lortzeko egokiena den moduan inbertituko da, beti ere,



**fundazioa**

estatutuetan ezarritako hitzarmen edo Fundazioaren baliabide ekarpenak egin dituztenekin hartutako akordioak, indarrean baldin badaude, errespetatuz.

**Bi.** Fundazioak, edozein momentutan eta behar den guztietan, bere kapitalarekin egindako inbertsioetan ekonomi-egoeraren arabera egokiak edo beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izango ditu, benetako balioa jaitsi ez dadin saihesteko.

**Hiru.** Fundazioaren ondarean dauden Titulu-balioen jaulkitze diren sozietateek beraien akziodunei lehenasunezko izenpetze eskubideak emanez kapital soziala handitzen dutenean, handitze hori adierazten duten akzioak izenpetu edo izenpetzeko eskubidea saltzea erabaki dezake Fundazioak.

Edonola ere, Fundazioak kapital haunditze horietan parte har dezake, nahiz eta sozietate jaulkitzaileak beste ondare-ekarpen osagarri bat galdatu.

## V. KAPITULUA. ESTATUTUEN ALDAKETA ETA AMAITZEA

### 21. ARTIKULUA. ESTATUTUEN ALDAKETA

Fundazioaren Zaingo Batzordeak, 6. artikuluan ezarritako helburua errespetatuz, Fundazioaren Estatutuen aldaketa erabaki ahal izango du.

### 22. ARTIKULUA. IRAUNGIPENA

**Bat.** Fundazioaren Zaingo Batzordeak Fundazioaren iraungipena erabaki dezake, dagozkion ondorioetarako Babesletzara bidaliz.



**FN**  
fundazioa

Notaria erabilerarako soilik.  
Para uso exclusivo notarial.

**B 2213073**

Bi. Fundazioaren kitapena egin ondoren gelditzen diren ondasun eta eskubideak, Zaingo Batzordeak zehazten dituen kultur edo hezkuntza izaera duten entitateetara ihardueretara bideratuko dira.

